Algeria "Eskual Herria" Alger-en

▼▼▼▼▼▼

Mixel Itzaina*

Alger-en soldado nintzen 1958. urtean. Pentsatu nuen Algerian soldado ziren euskaldunak elgarrekin har-emanetan ezartzea. Neri idazten zautaten eta gero nik bakotxaren berriak bertze guzieri hel-arazten nituen. Urte baten buruan, ni etxerat itzuli nintzan eta François Gaztanbide, orai Donibane Lohitzuneko erretor denak, hartu zuen nere segida. Bertze urte baten buruan armadak lan horren egiteko baimena kendu zuen.

Giltza-Hitzak: Algeria. Euskaldun soldado. Felaga. Gerla. Euskal Herria. Arabak.

En 1958, j'étais soldat en Algérie. J'ai eu l'idée de mettre en relation les soldats basques qui se trouvaient en Algérie. Ils m'écrivaient et ensuite je faisais parvenir les nouvelles de chacun d'eux à tous les autres. Au bout d'une année je suis rentré à la maison et François Gaztanbide, qui est maintenant curé à la paroisse de Saint-Jean-de-Luz, prit le relais. Au bout d'une autre année, l'armée interdit de réaliser ce travail.

Mots Clés: Algérie. Soldat basque. Fellagha. Guerre. Euskal Herria. Arabes.

Yo estuve de soldado en Argel en 1958. Se me ocurrió poner en relación a los soldados vascos que se encontraban en Argelia. Me escribían a mí y después yo hacía llegar las noticias de cada uno de ellos a todos los demás. Al cabo de un año regresé a casa y François Gaztanbide, que ahora está de párroco en San Juan de Luz, tomó el relevo. Al cabo de otro año, el ejército prohibió realizar este trabajo.

Palabras Clave: Argelia. Soldado vasco. Fellagha. Guerra. Euskal Herria. Árabes.

---

* Eusko Ikaskuntza. 51, Quai Jauréguiberry. F-64100 Baiona.

Soldadoen berriak *HERRIA* eta *GAZTE* kazetetan agertzen ziren. 1958-ko urtearen hastapenean ALGER hirian soldado izanez, pentsatu nuen Algerian ziren Euskaldun soldadoek plazer izanen zutela elgarren berri jakitea eta hori euskaraz, horrela, iduri baitzizautan, elgarren berriek, hobeki, Euskal Herri ixkin bat eremanen zutela Algeria-ko erroitz haundi hetan barna...

Zenbait zuzenbide bildu eta galdetu nioten beren berriak neri hel-araztea Alger-rat, erranez gero nik berriz barreatuko nituela deneri

Hastapenean, bulegoetan ari zen lagun batek, nahiz euskara ez jakin, stencil batean joiten zituen soldadoen eskutitz edo letrak...

Gure aferak ez zuen luze iraunen ALGER-ko Euskaldunek ez bagintuzte lagundu. Elkarte bat bazuten han eta hunen kazeta izan balitz bezala gure hau deitua ginuen: **ESKUAL HERRIA-BULLETIN NON PERIODIQUE DES BASQUES D'ALGER.** Eskertzekoak dira elkartearen buru zen DARRAIDOU, bai eta ere GARAT, ARRAMENDY, MINONDO eta bertze...

Dena den, nik utzi nuenean, 1958-eko urrian, 300 zenbaki edo ale igortzen nituen; ordukotz beraz Grazien Moustiratz-ek idazten zuen bezala “paper txar abiatua kazeta bilakatzen ari ginen! “Nere ondotik lan hori bere gain hartu zuenak, Frantxois GAZTANBIDE, orai Donibane Lohizuneko erretor denak, urte baten buruan, 450 ale. Lan puska bat bazen: soldadoen letrak behar baitziren berriz jo, gero ostoak elgarri lotu, plegatu, adrezak egin...

Kasik bi urtez hola utzi ginituzten hartzerat, bainan egun batez Frantxois-k manua ukan zuen gelditzeko. Manua gainetik heldu zen (Chef d'Etat Major-etik) hasi eta gain behera eskalerako mail guziek azpimarraturik omen, arrazoina zelarik: INCONTROLABLE! Eta A.E.K. ez zen oraino, denbora haietan ALGER-raino heldua!

GURE HELBURUA: Hastean erran bezala, soldadoeri elgarren berri jakin-araztea zen bai eta ere pentsaketa zenbait partekatzea, abusagailu batzu eskaintzea, irri solas, antzerki, kantu, bertsu eta abar...Horiek oro gure mintzairan.

Irri solas kondu PERNANDO AMEZKETARRA edo KRISTO ETA JONDONI PETRI ESKUAL HERRIAn aipatuak izan ziren.. soldadoek berek ere zenbait ixtorio helarazten zauzkuten. Orroit naiz ere “ARAMENDY-k egin antzerki baten “HAUTSAREN AZPIAN” bilduma egin ginuela. Hola bukatzen zen antzerki hori

> “...Bizirik atxik-azu Jainko amultsua
> Hautsaren azpi hortan gordea den sua!”

Kantuak ere emaiten ginituen: XALBADOR edo IRATZEDER-enak bai eta ere bertze xaharrago eta herrikoiak... Bertzalde soldadoak berak bertsu berri egiten ari ginen... Nolaz ez aipa Jan Battit DUFAU Bidartarra: “Algeriako lurretik hasten naiz kantatzen...” Pierre MINABERRY (Marokatik); HARGUIDEGUY Larzabaldarra (zortziak bat); DANTZARI (DANTZA ETA eta BALA); Mixel MENDIBIL eta Grazien

MOUZTIRATZ (elgarri emanak), ERROLA (axurant bat Algen atxeman dut egun... NECOL Simun Pagolarra (Killaren kantua) Airea: Agur Xiberoa:

Zato, zato killa
Hunat jinez geroz zu nahiz nabila!
Zato nere bila!
Eman dezatan nere arropa zibila
Ez gaiten rampila...
Goazen etxerat hobegoaren bila,
Hemen Algerian
Bizi aspaldian
Bertzeren menian...
Goazen azkenian
Libro girenian
Killa egunian...

EGUN GUZIETAKO BIZIA: Zer zioten beren egun guzietako biziaz? huna zenbait erantzun. JANARIA: Goizeko kafea, azukrerik gabea, bihotztarra ematen... Bazkaria tzarra, haragitzat “embuscades”etan atxemanikako mando idor, zakil, hetikatu zenbait, Pierre-k berriz jan behar 30 metretan gizona airos bota lezaketen ilar pikorrak...

Bainan egia erran gure lagunak ez dira baitezpada jatekoaz pleñi edo beren biziaren gogorraz. 45 urteren buruan letra horiek irakurtuz denak bat bertzearen ondotik huna zerk jo nauen:

– Zer plazer eta erran nezake zer atseginekin bertzeen berriak ukaiten zituzten.

– Lagun eskualdunen inportantzi edo garrantzia.

– Egiten ari diren gerlaz komentario eza.

– Galde bat egina baiginioten zer zioten hango jendeaz, erantzunak ez dira ainitz. Eta diren haiek ere negatiboak bizpahiruz bertzalde. Bakarrik apez edo misionest gaiak dira gai hortan baikor agerzen.

LEHEN PUNDUA: ZER PLAZERREKIN ELGARREN BERRIAK UKAITEN

“...Ohearen gainean jarri niz eta irakurri burian buru... Xoko moko guziak irakurturik bai eta Xalbadorren bertsuak kantaturik, lotzen naiz lanari, gure berrien emaiteko...” B.L.

“...Ezin erranezko plazerra ukan baitut holako artikulu eta ezin gehiago laket zaizkidan bertsu pollitak irakurtuz...” G.M.

“ Zure letra plazerrekin irakurtu dut bururen buru... eta nik ere gogotik parte hartuko dut igorriz hemengo zenbait berri...”

“ Ni biziki kontent niz zuen jokoaz, hola ikusiko dugu nun diren gure lagun eskualdunak eta zer dioten...”

“...Xoraturik nago letra huntan Eskual lagunen berriak ikusirik... Plazerrekin errapustuaren egiten lotzen nuzu...” L.U.

“...Atzo errezebitu dut zuek igorri kazeta eta mila plazerrekin irakurri dut bururen buru...” N.S.

“...Duela bi egun ukan dugu zien kazeta. Eta xoraturik leitzen dugu eskualdun guziek elgarrekin” M.E.

“...Bazinakite zer plazerrarekin irakurtzen dutan gure kazeta bururen buru...” M.E.

“...Michel BERHOUET Mauletarra ixtripuz hil eta haren lagun ANCHARTECHAHAR Isidore-k idazten zuen: ...Bezperan oraino, elgarrekin leitua ginuen gure kazeta maite hori...”

“...Eskual Herria “Iokarria... Agerkari miresgarri hori...” H.

BIGARREN PUNDUA: LAGUN ESKUALDUNEN INPORTANTZI EDO GARRANTZIA

Letra gehienek beren lagun eskualdunen berri emaiten edo galdatzen dute: haien izenak, nungoak diren, zer ari diren han... Eta Algerian soldado den eskualdun batentzat zer da zorion iturri? Bertze soldado eskualdun bat bederen berekin izaitea

Huna zer irakur ditaiken gutun horietan: “..Bi hilabeteren buruan killa... Ene pena horra zer den. Ez dut nehoiz izan eskualdunik enekin! Baditut HALERE lagun onak (22 hilabete huntan elgarrekin gira!) Bainan ez dute eskualdun bat balio!” J.O. Bidarraitarra.

Bertze batek: “orai ere badiat lagun ona frango, bainan ez eskualduna balio duenik, bat ere behin ere ez diat ukan! Bego beti eskualduna!” F.S. Armendaritztarra Ai zer kafarra emaiten dautazien zien letra hortan irakurtzen dutalarik bazireztela 3, 4 edo 5 eskualdun...” “...Deusek ez daut plazer egin hobeki, ikusi dutalarik nola eskualdunak beren herritik urrun izanik ere nahi duten elgar atxiki...” “...Ez nian uste eskualdunik hoin abilik bazela gure kazeta hola pentsatzeko hoin ederki... Zer gauza ederra eskualdunen artean hola berrien jakitea...” J.P. E. Mehaindarra. “...Azken aldiko agerkariak xoratu bainau ikusiz eskualdunen arteko atxikimendua...” G. Iholdiarra.

ESKUALDUNA hitza dugu beraz hor denen erdian. Eta zer errealitate gordetzen du hitz horrek? Lehenik nere ustez, hor idazten duen batek hoin ederki dioen bezala: “Mintzaira zahar bezein zail batek elgarri sekulako josi etxekoak...!” Bertze batek dioelarik “Iduri zait gure mintzaira edozein bezein ederra dela eta eskualdunek ez lukete bertzerik behar ahoan...”.

Nahiz mintzaira oinarria izan,bada ere horren inguruan, bertze bizi kultura bat. Eman dezagun MUSA ainitz aipatua da letra horieta, ahantzi gabe xahakoa! Kantua ere ba. Mezak, denbora haietan bere lekua bazuen. Eta eskual elizkizunen majestate eder hura han da beti buru gibelean. Huna zer dioen Graxianek: “Atzo mezan izan naiz. Bainan ez dut Eskual Herriko kantu ederren gozoa kausitu... Bueltaka atzoko kantariek halako loeria eman-arazten baitzauzuten beren aire malinarekin, nun erran baitzitaken aldika: To! aldixartu dituk!”

Eskualduna diogunean, uste dut, diogula ere eskual-herrian bizi dena, erran nahi baita, ezinago gustagarria den ingurumen goxoan.mendia eta itsasoa eskaintzen dauzkun ingurumenean. Eta batek idazten duen bezala “gain hotako biziak ez baitu deus gustagarririk...” ez da mirakulu gertatzen dena: letra batean irakur ditaikena: “...gorputza Algerian eta arima Eskual Herrian, horra eskualduna bere lamin eta sorgin ixtorioekin...”.

Pundu hunekin finitzeko, nahiz zenbaitek beren lagun frantximanten ganik trufa jasan behar, beren xarabia haren gatik, badira hau ere entzun dutenak “... C’est drôle comme ces basques s’entraident”.

HIRUGARREN PUNDUA: ZER DIOTE EGITEN ARI DIREN GERLAZ?

Hor komentoriorik ez da. “La grande muette” sekulan baino ixilago agertzen da hor eskualdun gazte horien mihietan. Erran behar da guhaurek ere ez ginituela hortarat deitzen. Elgarren berriak jakiten nahi baginuen segitu, baziren gaiak aipatu behar ez zirenak. Eta gu ere bazterretik ari ginen, galdetuz zer pentsatzen zuten hango jendeaz eman dezagun, laster ikusiko dugun bezala.

Komentoriorik ez bada, parte bederen beren egintzak kondatzen dituzte; Huna zenbait datu: “...Régiment opérationnel batean gertatu naiz eta nere lana zer den pentsatzen duzue...” “...Tuniziako mugan gira... Leku hauk felagaz beteak dira... 200 bat pasatu nahiz ari dira... Zenbat hil, kolpatu presoner egin dituzten ere emana da; “...Apirilaren 23an ukan ditugu hiru lagun hilak eta bat kolpatua. Gure axuranta ere hil da hor. Ni ere ez naiz urrun ibili bainan Jainkoari esker atera naiz. “Zer ari giren? Ihizi basa erne eta azkar baitabila gure inguruan nun eginen duen ausiki bat aski haundia...” “...Ederki aztaparkatu gira joanden hilabetean felagekin. Eskuratu ditugu hiru mitrailluza, mortier bat, dotzena bat gerlako arma... Eta hamabortz felaga garbitu. “Eta segidan, komentoriorik gabe”... Gure bizimodua beti berdintsua da...” “...Beti felaga horien ondotik gabiltza bainan horiek goizetan argia ikusi orduko axeria xilorat bezala badoazi bixtatik...” “...Marxoaren 3an kolpatua izan nintzan 10 metretan bala batez” “... Berantegi zen felagentzat denak garbitu baitituzte... eta segidan: “hemen beti eskualdun berak gira... “Eta azkenik doi bat harrigarria dirudiena eskual abertzale haundi baten ahoan: “... Bi felaga ZIKINEK, arroka zilo batean gorderik zaudenek, nere lagunik hoberenetarik zen bat hil dautate... “Horrek erran nahi du gerlan sartuz geroz hunen logikan sartzen zirela... Eta ondorioz “frantses eginak girela aspaldi haundian!”... Ez dea halarik ere gogoetagarri hoinbertze gutun edo soldado letren lerroetan ez aurkitzea honelako zerbait: Felaga horiek ere, behar bada, beren arrazoinak baziztean... edo baditie!

Eta buratzeko huna azken pundua, behar bada zerbait argi ekartzen dioena orai artinokoari. ZER DIOZUE ALGERIAKO JENDEAZ?

Gorago erran bezala eskual soldadoen iritzi edo aburua ez da ona. Huna zenbait ateraldi “... Arraza tzarra da hori, zikinak dira, ohoinak, gezurtiak... Ez ditaike horieri konfientziarik egin...”. “...Nik ez ditut ikusten ahal beren piltzarrak dilingo...” B. Hazpandar bat. “Haur bat operazionetan bildu dute eta hunek ez deie obeditzen.” “Ez da mirakulu, dio gure eskualdunak, berak abereen pare bizi dira eta...”. Beste batek: ... “Araba alfer gogorra da, ez da deusetarat entseatzen, nahiago du iguzkirarat egon pareta baten kontra muskerra bezala... Eta lanean ar-arazi emazteak eta haurrak... Lur itzultzeko zurezko goldeak, ez dakite behien uztartzen...”.

Huna zer dioen Beñatek: “...Segur bada gure xoko pollitetan mahastiko etxola ainitz hemengo etxen aldean palazio batzu iduri baitute... Egun guziez, edozoin tenorez, goizeko sei orenetarik arratseko zazpiak artean, ikusten dira jende horiek ate aintzinean jarririk, batzuek dauzkatelarik haur pare bat besoetan, mukia sudurretik dilingo, bertze batzu pipa bat eskuan, xoraturik bezala daude, aireari igortzen duten keari beha eta bertze batzu berriz beren muztatz haundiak bihurdikatuz egun guzia aireari beha daude... Ikusi dut ere emazte xahar bat zonbait egur puska beso azpian eta bermatuz bertze eskuan duen makila kozkor bati, oinetakorik gabe, bai eroriko, ez eroriko, etxerat buruz zoan... “Bertzalde norbaitek erran dio Beñati jende horiek hiru egunez lanerat heldu badira, bertze hiru egunez pausan daudela... Eta hau ere Beñatek dio: “...Laneko ideiarik ez duen jendearekin zer nahi duzue egin?”

Xipri ALBERBIDE-k erantzuna eman zion Beñati erranez irakurri berri zuela liburu bat titulu hau zaukana: “La lutte des Algériens contre la faim”. Hunen idazleak dioenaz Algeriako jendeak ez omen du bizitzeko behar denaren erdia ere jaten eta jan gabe lan guti... Bertzalde liburu berean den bertze artikulu bat aipatzen du Xiprik, Alger ondoan den lantegi bateko nagusiak egina. Langile guziak denak arabak dira lantegi hortan, ontsa pagatuak dira, ontsa jaten dute eta nagusia haien lanaz biziki kontent da...

Bere aldetik Jan Battit Mendiondo misionest gaiak idazten du: “...Horiek ere gu bezala gizonak dituk musulmanoak, badie beren mintzaira, baitie kantuak, dantza, musika...” eta galdatzen deie bere laguneri musulmanoak errespetatzea, ramadam denboran egunazko barur hori ez baita errexa... “Eman dezagun oraino Emile Etchenique Jatsuarraren iritzia: “Hemengo jendea Frantziakoa iduria, bietan ba langileak eta ba alferrak... “Bainan iritzi hori ez da, hurbiltzekorik ere, gehiengoarena... soldadoak izan diten eskualdunak edo ez...

Finitu aintzin huna HIRIGOHEN apezak, berriz Eskual Herrirat itzultzean igorri gutunetik pasaia batzu: “...Ene azken hitza Algeriako lur dohakabe huntarik... Hangoek ikus balezate hemengo zonbaiten bizitzeko manera, balakite zer den 28 hilabetez hemen egoitea, sendi balezate gure aitamen eta haurrideen arrangura luzea... Zer balio dute hemengo gure zalapartek? Ez da guri galde hoieri errapustu emaitea... Ez uka zien sinestea; ez egin hemen Eskual Herrian egin ez

zinezaketenik; ez da egia gerlan denak libro direla, bada giristinoki gerla egiteko manera, hura da funtsean gizontasun manera...” eta Armand CAZAUBON, Arrangoiztarraren agiantza eder hunen ondotik ixilduko naiz: “Agian Jainko maiteak bakea laster ekarriko dauku lur huntarat... Gu itzul gaiten gure E.H. maiterat eta hemengo jendeek bizi molde hobea izan dezaten, gerlak ez baitu nehor aberasten”.

Hemen banituen bi ohar idatziak, Kanbon irakurri ez ditutanak, iduri baitzizautan 20 minuta haiek iraganak zirela. Labur bilduz lehenean gogoeta egiterat gomitatzen nituen gazteak, “eskualduna” hitz horren erran nahiaz, ikusiz Algeriako soldado ohi horietarik ainitzek ez zutela euskara beren haurreri erakutsi!

Bigarren oharrean nioen Algeriako gerla aipatzekotan, egia osoa behar zela erran, ez bakarrik frantsesek egin itsuskeriak, bainan bai bertzeenak ere.